



LASARTE-ORIAKO  
UDALA

## Lasarte-Oriako Zerbitzu pertsonalen aktibazioa Activación del Sector de Servicios Personales en Lasarte-Oria

### 2. Partehartze-bileraren akta Acta de la 2ª reunión de participación

Dokumentu zkia.: 02

<b>Data / Fecha:</b>	2013/01/30	<b>Ordua / Hora:</b>	14:00 - 16:00
<b>Lekua Lugar:</b>	Lasarte-Oriako Udala "Villa Mirentxu"ko ekitaldi aretoa Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Sala de reuniones de "Villa Mirentxu".		
<b>Antolatzaileak:</b>	<input type="checkbox"/> <b>Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Kooperazioa, Enplegua eta Emakumea Saila:</b> Departamento de Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer:		
<b>Convocantes:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Gorka Lizarraga. Departamentuko lehendakaria. Presidente del Departamento.</li><li>○ Dionisio Ávila. Enplegu dinamizatzailea. Dinamizador de Empleo.</li><li>○ Izaskun Cuartango. Toki garapenerako teknikaria. Agente de Desarrollo Local.</li></ul>		
<b>Bertaratuako establezimenduak:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Autoeskola Lasarte</li><li>○ Gureak Lasarte</li><li>○ Konfia Servicios de Conciliación S.L.</li></ul>		
<b>Establecimientos asistentes:</b>			

### Landutako gaiak / Temas tratados

Azaldu egiten dira Udaleko sail bakoitzak eman dituen erantzunak aurreko bileran, 2012ko azaroan sektoreak egindako proposamenei.. Ondoren, talde bakarrean egin da lan zehazteko proposamen ezberdinen lehentasun-ordena, bakoitzari puntuazio bat emanez:

#### Sektorean mantendu nahi dena

1. Bezeroarekin harreman estuagoa: 16
2. Elkarlaguntza promozioa egiterakoan. Establezimendu bakoitzak informazioa eman dezake besteei buruz. Adibidez, tarjetero bat eskainiz establezimendu bakoitzak bere informazioa berta uzteko: 16
3. Merkadilloa: udalerriri bizia ematen dion jarduera: 13
4. Irigarritasun publikoa: Eskailera mekanikoak Sasoeta eta Oztaranen, igogailua Sasoeta eta erdigunearen artean: 13
5. Aprobetxatu bata bestearen bezeroak ere bagarela, lankidetzat sustatu: 16
6. Hiribusa. Manttangorri: 17

## **Hobetu nahi dena**

1. Hernani eta Lasarte-Oriaren arteko autobus-linea hobetu (herri osotik igarotzea, Oriako zonalderaino): 18
2. Udalak kontratatu ditzala herriko enpresak, horiek egin dezaten orain kanpoko enpresek egiten dituzten lanak (eta beraz udalerritik kanpo zergak ordaintzen dituztenak): 19
3. Donostiarekiko gertutasuna aprobetxatu, faktore positiboa da udalerrientzat: 17
4. Sasoeta eta erdigunearen arteko igogailuaren garbiketa hobetu. Zikin dago eta zaindu gabe, eta horregatik hasieran baino gutxiago erabiltzen da orain: 14
5. Aparkaleku-faltaren arazoa konpondu: 17

## **Ez dagoena**

1. Negozioetan herriko langileak kontratatu: 19
2. Kontrolatu txinatarren establezimenduen eragina: 9
3. Azkartu obrak eta erreformak egiteko lizentziak. Negozio berriak sortzeko tasak jaitsi: 18

Aurreko puntuaketetatik abitatuta, zehaztu da Udalaren ekintzarako ondorengo **lehentasun-ordena**:

1. Udalak kontratatu ditzala herriko enpresak, horiek egin dezaten orain kanpoko enpresek egiten dituzten lanak (eta beraz udalerritik kanpo zergak ordaintzen dituztenak): 19

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Irizpide hau aplikatzen da dagoeneko kontratu txikienetan. Aplikatzen jarraituko da.
- Baloratzen direnean enpresen eskaintzak kontuan izan koste publiko totalak (zergak, kotizazioak, prestazioak, dirulaguntzak, eta abar) adjudikazioak ematerakoan.
- Adjudikazioetan prezioaz aparte beste irizpide batzuk ere baloratu.
- Gizarte klausulen aplikazioa sustatu pliegoetan. Adibidez, langileak subrogatu behar diren kasuetan, behintzat baje edo ordezkapenen ondorioz ordeztu behar diren langileak laneratze enpresen bitartez kontratatzea.

2. Negozioetan herriko langileak kontratatu: 19

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Profil profesionalak antzekoak direnean kontratatatu udalerriko langabeak.
- Kontuan izan kostu publiko guztiak (zergak, kotizazioak, prestazioak, dirulaguntzak, eta abar) enpresei adjudikazioak ematerakoan.

3. Hernani eta Lasarte-Oriaren arteko autobus-linea hobetu (herri osotik igarotzea, Oriako zonalderaino): 18

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Aplikatu tasen ezabatze edo murrizketa tenporala hasiberriak diren negozioei, ikusi arte negozioia aurrera doan ala ez (adibidez, 6 hilabete edo urtebeteko epean).

4. Azkartu obrak eta erreformak egiteko lizentziak. Negozio berriak sortzeko tasak jaitsi: 18

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Udalak Foru Aldundiari eskaera egitea.
- Gureak Foru Aldundiari egindako eskaera Udalak babesa ematea.
- Aipatzen da Lasarte-Oria eta Hernani artean autobus-linea bat egotearen garrantzia, adibidez, Hernaniko poligonoetara lanera doan jende guztiarentzat.

5. Hiribusa. Manttangorri: 17

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Mantendu dadila oraingo maiztasuna.
- Ordulegiei buruzko informazio gehiago ematea. Jarrita egon beharko lukete autobusaren geralekuetan horren erabilera hobetzeko.

6. Donostiarekiko gertutasuna aprobetxatu, faktore positiboa da udalerrarentzat: 17

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Euskotrenen erabilera sustatu
- Lasarte-Oriaren promozioa egin Donostian eta Usurbilen batez ere, eta eskualdean.
- Lasarte-Oriaren publizitate-kanpaina bat egin beharko luke Udalak azpimarratuz Lasarte-Oriak prezio merkeagoak dituela Donostiarekin alderatuta. Kanpaina zuzenduko litzazieke Donostia eta Usubilgo biztanleei.

7. Aparkaleku-faltaren arazoa konpondu: 17

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Udalaren azpian egongo diren aparkaleku berriei dagokienez, planteatzen da plaza horien prezioak izan beharko lukela hilean 50€ baino gutxiago lehiakorrak izateko.
- Parking errotatiboko plazak egokitu daitezke, koste sinboliko batekin, adibidez, 20-50 zentimo orduko.
- OTA sistema merkea jarri.

8. Bezeroarekin harreman estuagoa: 16

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Azpimarratzen da bezeroaren izena ezagutzearen garrantzia. Sektorean difunditzeko balore bat da.
- Bezeroarekiko gertutasuna indartu. Sektorean difunditzeko balore bat da.
- Kreditua eman bezeroari, ordainketak atzeratuz edo bestelako ordainketa moduak adostuz. Facilitar crédito económico al cliente, aplazando pago o consensuando formas de pago. Sektorean difunditzeko balore bat da.

9. Elkarlaguntza promozioa egiterakoan. Establezimendu bakoitzak informazioa eman dezake besteei buruz. Adibidez, tarjetero bat eskainiz establezimendu bakoitzak bere informazioa berta uzteko: 16

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Elkarri promozioa egin, Udalaren sustapenarekin.
- Promoziorako neurriak ezagutzera eman.

10. Aprobetxatu bata bestearen bezeroak ere bagarela, lankidetzaz sustatu: 16

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Elkarri promozioa egin, Udalaren sustapenarekin.

11. Sasoeta eta erdigunearen arteko igogailuaren garbiketa hobetu. Zikin dago eta zaindu gabe, eta horregatik hasieran baino gutxiago erabiltzen da orain: 14

Horrekin zerikusian planteatu diren ekintzak:

- Kontrataturiko enpresak ongi egin dezala mantenimendu eta garbiketa lanak.

12. Merkadilloa: udalerriri bizia ematen dion jarduera: 13

13. Irisgarritasun publikoa: Eskailera mekanikoak Sasoeta eta Oztaranen, igogailua Sasoeta eta erdigunearen artean: 13

14. Kontrolatu txinatarren establezimenduen eragina: 9